

EUSKAL HERRIKO GOTORLEKUAK

Datu historikoez diote boteretsuen, monarkien idiosinkrasia euren botere eremua zabaltzea izan dela, lurralde berriak konkistatu. Gizartearen historia gerraz, erasoz, inbasioz, indarkeriaz, liskarrez beterik dago. Gerra hauek gehienetan indartsu eta boteretsuek sortuak izan dira besteak mederatzeko eta euren nagusitasuna, boterea eta agintea inposatzeko nola alor politikoa, hala ekonomikoa, etikoa, edo erlijiosoan.

Arrazoa? Arrazoiaren indarra baino gehiago indarraren arrazoa erabili izan da.

Hala, eraso hauen aurrean gizonek, herriek eta erkidegoek euren burua defendatu behar izan dute harresiak eta gotorlekuak eraikiaz, bereak ez diren beste balioak, beste nortasun bat, beste etika bat, beste erlijio bat inposatzea galarazteko, ahal den heinean arrazoiaren indarrarekin indarraren arrazoiaren kontra lehiatzeko.

Garaileak bere kultura, bere baldintzak, bere nortasuna, bere arauak, bere balioak inposatu ditu beti, eta oinperatuak ikusi du bere bizitzan gehien estimatzen dituen balioak menderatuta: hain zuzen bere identitatea, bere kultura, agian bere erlijioa galdu edo kolokan ikusten du.

Historia honen ondorioz, alde batetik, harresietan defentsa heroikoen ondoren tente mantenduz, euren identitatea eta balioak hobeto edo gaizkiago mantentzen jakin duten hiriekin topo egiten dugu. Bestalde tristuraz ikusten ditugu harresi eta go-


torlekuak hondamenetan, azken porroteko erretratu triste, galdutako identitateen isla, suntsitutako balioen minetan; eta aldi berean, besteen identitateak eta balio desberdinak errespetatuz elkarrekin bizi izaten ez dakien giza basakeriaren erretratu.

Juan Mari Arrizabalaga



1. SOKOAKO FORTEA (Lapurdi)

Sokoa Ziburuko berriari loturik egon da betidanik. Arrantzan dibarduen berrixka bonen interesgunerik bandiena bertako gotorlekua da. Enrike IV.aren aginduz, espainiarren erasoei aurre egin eta Donibaneko Badia babesteko belburuarekin, dorre-gaztelu bat hasi ziren eraikitzen 1638an Sokoako portuan; eta XVIII. mende hasieran berriro eraiki zuten, Sébastien Le Prestre, Vaubango markesa Frantziako mariskal eta ingeniari militarren aginduz. Vauban Gotorlekuak eraiki eta hartzeagatik ospetsua izan zen.



2. ARTAXOAKO ZERKOA (Nafarroa)


Ederra da zinez Artaxoako alderik gorenetik dagoen ikuspegia. Izan ere, dorrez, harresiz eta eliza-gotorlekuz zipriztindutako mibise ikusgarria da. Hasieran bamalau almenadun dorre izan zituen -borietatik bederatzi daude gaur egun-, denak erronda-bideaz lotuta. 1085ean basi ziren eraikitzen. Mendez mende, errege-erreginek, jaunek eta elizjendeak biziro irrikatu duten tokia izan da eta borrek hamaika borroka sortu zituen. Hori dela eta, gotorlekua bainbatetan berreraiki behar izan zuten.



3. GALEA GOTORLEKUA (Bizkaia)


Printzearen gaztelua Getxon, Nerbioi itsasadarraren sarreran kokatutako babes-gotorleku bat da. X. mendean jasotako baleak ikuskatzeko talaia baten ordeztu eraikia. Eskuadra ingeles indartsu baten mehatxuen aurrean kostaldean indartu eta babesteko asmoz eraiki zen. Baina, datu historikoen arabera, gotorlekua eta beraren 18 kanoi-zulo inoiz ez ziren erabili.

Disuasio-belburua bakarrik zuten. 1782an Bilboko Kontsulatuak Bizkaiko lehen itsasargia eraikiarazi zuen Donostiakoaren antzera.




4. HONDARRIBIKO HARRESIAK (Gipuzkoa)

Hondarribiko Erdi Aroko gotorlekuak aurrera egin zuen biztanleriak eta garrantzi estrategikoak gora egin abala. Hondarribia eraikuntzako aroan balio handiko gune estrategiko bat gertatu zen nola Nafarroako erresumarentzat hala Gaztelakoarentzat. Errege Katolikoek hobekuntza eta handitze lan bikainak egin zituzten bertan, hainbat gerra gorabeheraren eta setioen ondoren konpondu bebarrean izan baziren ere. Karlos V.ak gotorlekuak berritu zituen atzera XVI. mendearen bigarren erdialdean. Harresi modernoek inguratu zuten Hondarribia; barresi hauek, inguru guztian bainbat bastioi, zubi, ate etab. zituzten




5. UXUEKO GOTORLEKU-ELIZA (Nafarroa)

Uxue, Erdi Aroak Nafarroan utzitako adibiderik nabarmenetakoa da, eta elezahar eder baten sebaska. Horren goiko aldean, sendo eta dotore, Uxueko Santa Maria gotorleku-eliza dago. Jatorri erromanikoa du tenpluak, eta bainbat eraikuntzak inguratu eta itxuraldatzen dute. Gotorleku militar baten itxura du, eta borixe du bere ezaugarri bereziarena; izan ere, dorre almenadunak, erronda-bideak eta borma bular sendoak ditu. Elizaren inguruko barresia, Nafarroako estilo gotikoan dago eraikia.




6. ZERAINGO ATEA. SEGURA (Gipuzkoa)

Segura, Nafarroako Erresumaren mugako gotorlekua, muino baten gainean eraiki zuten, eta harresiz, karkabaz, zubi altxagarriz eta dorreekin zaindutako atartez inguratu. Hala Erdi Aroan gipuzkoako hiribildurik seguruena zen. Hirigune historikoak Erdi Aroko hirigintza-morfologia gordetzen du argi eta garbi. Hiribilduak izan zituen bost atetatik ondoen irauten duena Zeraingo atea (XVII. m.) da. Puntu erdiko arkuia eta zurezko egitura ditu. Horman kanoi-zulo txaranbelduak ditu.




7. GUARDIAKO HARRESIAK (Araba)

X. mendean Antso X.a Abarkak muino batean gaztelu bat eraikitzen du Nafarroa babesteko. XII. eta XIII. mendeetan zehar harresiak eraikitzen dituzte, herria gotorleku menderaezin bat bihurtzeko. Urteetan zehar Nafarroako eta Gaztelako erresumen artean gerrateak izan ziren eta Guardia errege baten zein bestearen eskuetan gertatzen da, XV. mendean Arabaren eskuetara. Gero gotorleku bezala garrantzia galtzen du. Eta XIX. mendean, Karlistadan harresiak kalte handiak izan zituzten. Baina historiaren gorabeherek ez diote biriari bere errege-itxura dotore hori galarazi.




8. DONOSTIAKO GAZTELUA (Gipuzkoa)

Historian zehar Donostiako gazteluaren egitekoa biriaren defentsaren osagarria izatean zetzan eta borregatik gazteluaren historia biriarenarekin estu lotuta doa. XI. mendean Antso III.a Gartzetz Nagusia Nafarroakoak, dirudienez, Urgull mendian defentsa-dorre bat eraikitzeko agindua eman omen zuenetik gaur arte, Urgulleko gazteluak eta bertako barresiek bakerik ez dute izan: eraikuntzak, berreraikuntzak, suntsipenak, setioak, barrapaketak, suteak, errausketak... Eta hor gelditu zaizkigu historiaren lekuko, iraganaren aitorle eta... orain biriaren apaindura.



9. BAIONAKO HARRESIAK (Lapurdi) PORTE D'ESPAGNE ETA MUSEROLA. BAIONA (Lapurdi)


Baionako barresiek hamabost mendetan zehar biria babestu duten biru gotor-sistema biltzen dituzte. Goialdeko hirigunean, Baiona Handian, antzinakoenak ikus ditzakegu, erromatarrek bain zuzen. Harri handizko geruza bikoitzez eginak eta Baionako hirigune zabarra inguratzen dute. XVII. mendean errege-ingeniariek, Vauvan aurrendari zutela, gune hau berri batez inguratu zuten. Han aurkitzen dugu Porte d'Espagne ospetsua, barresiz eta dorrez inguratutik. Eta behealdeko hirigunean, Baiona Txikian, kokatzen da Muserola ate ikusgarria, beronen zubi altxagarri eta guzti.



10. URDUÑAKO GOTORLEKU ETA HARRESIAK (Bizkaia)

Urduñako biria bi aldiz eraikia izan zen. Lebenengoa 1229an (Lope Diaz de Harok) eta bestea 1256an (Alfontso X.a, Jakitunak). Eta bietan barresiz hornitua izan zen. Gero 1500 inguruan biriko biru zatiak barresi batez inguratu ziren; barresi horietatik gaur Santa Maria eliza osatzen dutenak ikus ditzakegu. Defentsarako barresiek absidea osatzen dute.

Bertan, zuloz betetako erronda bidea nabarmentzen da kontrahormen artean, eta baita biribilduaren barresien jatorrizko zatia ere.



11. AMAIURKO GAZTELUA (Nafarroa)

Gaur egun, Amaiur eta bertako Gaztelua Nafarroako erresumaren memoriarentzat sinboloak dira. Iaz, 500 urte bete ziren Fernando Katolikoa, Aragoiko Erregeak Nafarroa konkistatu zuenetik. Gero 1522an, Gaztela eta Aragoiko armadek, 1512ko Nafarroako konkista eta gero Nafarroako Erresuma berreskuratzeko birugarren saiakeran, setiatu eta gaztelua erre egin zuten. Gaur egun, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik, indusketa-aldi arkeologiko sistematikoei esker bainbat aztarna ageri dira gure aurrean.




12. ZABALATEKO GAZTELUA (Araba)


Zabalate XII. mendean Nafarroako Erresumako mendebaldeko muga babesten zuen hiribildu-gotorlekua izan zen. Gazteluari, 70 metroko luzera eta 6 metroko zabalera zituena, egun ubarka eta gorazarre-dorrearen bondarrak baino ez zaizkio gelditzen. 1199an erresuma defendatu zuen gaztelar inbasioaren aurka Gaztelako erresumak indarrez ezin izan zuen hartu, baina bai trukaketen bidez. Gero, epeka-epeka garrantzi estrategikoa galduz joan zen. Egund Arabako armarrarian agertzen da.




13. AGRAMONDARREN GAZTELUA (I). BIDAXUNE (Nafarroa Beherea).- Nafarroaren historia, neurri batez, Agramondarren eta Beaumondarren arteko borroka da. Nafarroa bitan banatu zenean, baita erlijio gerretan ere, Agramondarrak Nafarroako erregearen ondoan egon ziren; Beaumondarrak ez bezala. Gazteluko aurrealdeko eraikina berreraikuntza errenazentista da (1572-1610) eta bi hegala paralelo ditu, ajimez erako leihoekin eta dagozkien frontoiekin eta bere sarrerako atearekin, zubi altxagarri batez.



14. AGRAMONDARREN GAZTELUA (II). BIDAXUNE (Nafarroa Beherea).




15. MONJARDINEKO GAZTELUA. VILLAMAYOR DE MONJARDIN (Nafarroa). Monjardin mendiaren tontorrean Erdi Aroko gaztelu-gotorleku baten aurriak daude. Poligono oinplanoa zuen, horma lodiak ere bai eta haren islak itsasontzia dirudi. Talaia estrategikoa zen. Handik ikus zitezkeen ederki asko mairuen, karoldarren, Banu Kasitarren, kristauen borrokak eta liskar erlijioso eta sozio-ekonomikoak. Beren lurra gordetzen zeuden gerlarien gotorlekua zen; errege-erreginen bileta eta bilobi tokia.




16. TORRE LUZEA. Zarautz (Gipuzkoa).

Herriko Kale Nagusiaren erdian kokaturik, Gipuzkoa mailan dorretxe eredurik onena bezala bartzen da. XV. mendean eraiki zen zarauztarren familia ospetsuarentzat. Harlanduzkoa da eta biru oin ditu. Bebe-oinean guardia-gorputza zegoen. Azpimarratzekoak dira ataritxo-eskailera eta Gaztelako Enrike IV.aren armarría.




17. ERIBERRIKO ERREGE JAUREGIA. (Nafarroa).

Europako gaztelu gotikoen artean bereziki garrantzitsua da. Karlos III.ak eraiki zuen 1406an. Bere ezaugarriek jauregi frantziarren antza ematen diote, erdi aroko gaztelu latz eta funtzionalen aldean. Independentziarako Gerran Espoz Minak su eman zion. Jakina denez, hamabost dorretzar izan zituen, bakoitzak bere izena izanik, eta kondairak dioenez, urteak hilabete bezain beste areto. Gaur egungo egoera mendetan egindako berreraikuntzen ondorioa da eta, bereziki, Yarnoz arkitekto jaunak egindako berreraikuntza-lan bikainen emaitza.



18. IDIAQUEZ DORRETXEA (Etxe beltz). AZKOITIA (Gipuzkoa).

Erdi Aroko barresi zabarraren babesean eraikia, historiako hainbat gertakarik belztu dute baren itxura. Idiaquez, Olano eta Loiolatarren armarrri historikoak ikusten dira etxearen fatxadetan, eta horrek gogorarazten digu, besteak beste, etxea, garai batean, Loiolako Ignazio Donearen Etxeko Jaurerriarena izan zela. XIX. mendean, sarri bizi izan zen bertan gorte Karlista, eta, hain justu, etxe horretan ezkondu zen Karlos V.a, lehen erregegaia, Beirako printzesarekin, 1838. urtean.




19. XABIERKO GAZTELUA. Zangoza (Nafarroa).

Gatzeluaren jatorria X eta XI. mendeetan dago. Garai bartan talaia edo dorre isolatua zen, babesleku baino gebiago, behatoki gisa sortua. Erdi Aroan jatorrizko dorrearen inguruan babeserako gune desberdinak eraiki zituzten. Dorre poligonala XV. mendean gebitu zitzaion. 1516an, Cisneros Kardinalaren aginduz, kanpoko bormak eraitsi, dorreak moztu, bobiak itsutu eta matakanak eta gezi-leiboak baliogabetu ziren. 1952an zabarberrikuntza-obra garrantzitsuak egin ziren eta gatzeluari galdutako gerra-fisionomia itzuli zitzaion.




20. BALDAKO DORRETXEA. AZKOITIA (Gipuzkoa)

Dorretxe hau XIII. mendekoa da, garai hartako gipuzkoar eraikuntza tipiko bat. Nabiz eta jatorrian bere funtzioa bereziki babeserakoa izan, XIV. mendean moztu zen -bots, bere zonarik altuena, hau da dorreoia, ezabatu zen- Gaztelako Enrique IV.a erregearen aginduz. Bestalde, etxe hau bandoen borroketan interes nagusiko foku bat izan da ganboatarren erdigune bat zenez gero. Gainera, bertakoa zen eta bertan bizi izan zen Marina de Licon, Loiolako San Inazioaren ama, 1467an Loiolako Beltrán-ekin ezkondu zen arte.




21. JAUREGI ZAHARRA. DONAMARIA (Nafarroa)

Donamariako Dorrea edo "Obolezko Etxea" XV. mendetik aurrera iparraldeko baran bezeetako eraikin zabarren nortasunaren isla soil baina dotore altxatzen da. Funtsean gotikoa da eta inguruko materialez eraikia, alegia barriz eta zurez. Zura da goi aldeko benetako protagonista. Egurrezko egitura -"kadalso", alegia, zurezko gotorleku edo bastioi-borrek, beberago dauden gezi-leihoekin batera, garai batean zuten defentsa-erabilpena dakarkigute gogora.




22. SAN TELMO GAZTELUA. Hondarribia (Gipuzkoa).

Piraten Gaztelua ere deritzo eta Hondarribiako babeslekurik zabarrena da. 1598an eraiki zen Erregearen aginduz Asturiagako portua eta Bidasoaren sarrera kortsarioen erasoen aurka defendatzeko. Horretarako, kanoiak eta behar bezalako bornidurak zituen. Tenplarioena izan zen. Geroago abandonatu zuten.



23. INFANTERRIAREN DORREA. Mendoza (Araba).

Oñaztarren aldean ziren Mendozatarren oinetxea, oraindik ere urkalekua gordetzen duen eraikuntza ederra, sendoa eta tinkoa da. XIII. mendetik XIV.era bitartean eraiki zen. Erdi aroko dorre urria erdian duten bormez inguratutako ia lau angeluko esparrua da. Hormak, 5 m. inguruko altuerakoak, apaindurarik gabe jasota daude eta gezi-leiboz zulatuta. Sarrerako ateak arku zorrotz bat du eta bormen aldeetan lau dorretzar daude.



24. SAN MARKOS GOTORLEKUA. ERRENTERIA (Gipuzkoa).

Luis Nieva ingeniariak diseinatu zuen beste matxinada karlista baten mehatxuari aurre egiteko, eta gotorlekua 1888ko abuztuaren 25ean inauguratu zen. San Marko Gotorlekua ekialderantz eraiki zen, mugatik etor zitezkeen erasoen aurka egiteko. Halaber, eraso hauek ez ziren inoiz beldu. Gaur egun ez du erabilpen militarrik; armadak 1970. urte arte okupatu zuen, eta egun Lau Haizeta parkean integratuta dago, ekipamendu ludiko eta kultural bezala.